

**ALDEZ AURREKO KONTSULTA, ONDASUN HIGIEZINEN GAINKO ZERGAREN ARAUDIA BATERATZEN DUEN ARAUGINTZAKO FORU DEKRETUAREN PROIEKTUAZ.**

Bat etorri zedapen orokorrak egiteko prozedura eta araugintza teknikari buruzko jarraibideak onesten dituen maiatzaren 23ko 29/2017 Foru Dekretuaren I. eranskineko 9. artikuluan xedatutakoarekin, eta xedapen arauemaileak prestatzeko prozeduran herritarren parte hartzea hobetzeko helburuaz, goiburuan aipatutako proiektuak prestatu aurretik kontsulta publikoa egin behar da; kontsulta horretan, iritzia azaltzeko eskatu behar zaie etorkizuneko arauaren eragina jaso lezaketen herritarrei eta ordezkagarritasun handieneko erakundeei, honako gai hauek direla eta:

- a) a) ekimen horiekin konpondu nahi diren arazoak,
- b) b) horiek onestearen beharra eta egokitasuna,
- c) c) arauen helburuak,
- D) d) egon daitezkeen bestelako aukerak (arautzaileak eta arautzaileak ez direnak).

Aurrekoa betetzeko, hurrengo kontsulta planteatzen da, Ondasun Higiezin gainera Zergari buruzko uztailaren 19ko 42/1989 Foru Araua eta hura aldatu duten xedapenak behar bezala araututa, argituta, harmonizatuta bilduko dituen testu bategina onetsi nahi duen etorkizuneko xedapenaren eragina jaso lezaketen herritarrei eta ordezkagarritasuna duten erakundeei beren iritzia azal dezaten eskatzeko.

Herritar, erakunde zein elkarteek, egoki baderitzote, galdera sorta honetan planteatutako alderdiei buruz duten iritzia adierazi ahal izango dute, otsailaren 26ra arte, [aurrekontsultak@araba.eus](mailto:aurrekontsultak@araba.eus); helbide elektronikoko postontziaren bidez.

<b>AURREKARIAK</b>	2021ko Zerga Neurriei buruzko urtarrilaren 29ko 2/2021 Foru Arauaren Lehen Xedapen Gehigarria
<b>KONPONDU NAHI DIREN ARAZOAK</b>	Ordenamendu juridikoaren araudia berrikustea, sinplifikatzea eta, hala badagokio, bateratzea, arau esparru simple, argi eta ez sakabanatua lortzeko, herritarrek hura errazago ezagutu eta uler dezaten, beharrezko egokitzapenak eginda emakumeen eta gizonen berdintasun printzipioa eraginkor egiteko eta hizkuntzaren erabilera ez-sexista zabaltzeko..
<b>ONETSI NAHI DEN ARAUAREN BEHARRA ETA EGOKITASUNA</b>	2021erako Zerga Neurriei buruzko urtarrilaren 29ko 2/2021 Foru Arauaren lehenengo xedapen gehigarria. Arabako Batzar Nagusiek

	baimena ematen diote Arabako Foru Aldundiari foru arauak behar bezala erregularizatuta, argituta eta harmonizatuta bilduko dituzten testu bateratuak 2021eko irailaren 30a baino lehen onesteko.
<b>HELBURUAK</b>	Lehen aipaturako xedapenei buruzko testu bateratuak onestea
<b>EGON DAITEZKEEN BESTELAKO AUKERAK (ARAUTZAILEAK ETA ARAUTZAILEAK EZ DIRENAK)</b>	Ez dago alternatiba arautzailerik, 2021erako Zerga Neurriei buruzko urtarrilaren 29ko 2/2021 Foru Arauaren agindu bat baita.